

OHARRAK

Bertso zahar hauek prestatu eta kantatzerakoan, besteak beste bi arazo nagusi izan ditugu gogoan. Lenengoa, konposizio edo sorta bakoitzetik zenbat bertso kantatu. Bigarrena, paperean ipintzerakoan zer euskera erabili.

Konposizio bakoitzetik bertso guztiak ezingo genituela kantatu bixtan zegoen gauza zen; bertso asko baitira gehienetan, eta diska batek bere neurri estuak baititu. Orduan, guri garrantzitsuen zirela iruditzen zitzaizkigun bertsoak kantatzeko erabakia hartu genuen. Horregatik, orain ondoren emango ditugun bertsoen hitzak baiño lehen, iturburuen berri emango dizugu, zuk konposizio bakoitzetik bertso gehiago ezagutu nahi bazenituzke nora jo jakin dezazun.

Euskeraren arazoa latzago zen. Batetik, gu, hiru kantariok, euskera batuaren aldeko gera, eta Euskaltzaindiaren arauak onartzen ditugu. Baiña beste gauza batetaz ere konturatu giñen: bertsoak, garaiean garaiok, paperera eraman izan dituenaren irizki eta orduko usadioaren arabera idatziak izan direla, alegia. Bestetik, guk bertsoen hitzak ezin genituen gaurko euskera batetara pasa, horrekin askotan neurria, musikaltasuna eta aidea galdu erazi egingo baigenien. Azkenik, gu, arazo hontan, guk baiño lehen lana egin duten beste batzuren lanaz baliatzen ari giñela konturatzeko giñen, eta ez giñela nor haien euskera-mota aldatzeko. Bertso zaharrak, historiari eta tradizio bizi bati doakion zerbaite dira; eta historia, hizkuntza kontuetan ere, izan den bezelakoa izan da, eta ez guk gaur nahiko genukeen bezelakoa.

Beraz, bertsoen hitzak iturburuetatik jaso ditugun bezela errespetatu ditugu. Aldaketa itikiren bat egin izan dugunean, gure ustez oker zeuden gauzatxo batzuk zuzentzeko izan da (inprentako akats eta berezko hutsegiteak ugari xamarrek baitira bertso kontu hortan).

Hala ere, badago bertsoen hizkuntza idatziari buruz zertaz mintza eta zer kontsidera. Gure ustez, bertsoak bertsolariak oso gutxitan idatzi izan ohi dituzte, beste laguntzaile batzuk baizik. Orduan haiek beren erara jartzen zituzten. Bestetik, bertso asko eta askotaz bertso eta aldaketa ugariak ezagutu dira, eta jator eta egiazkoena berez zein zen jakiten oso zail da.

Horregatik, han-hemenka aldaketa itiki batzuk egin ditugu, eta zilegi zaigula uste dugu; baiña, esan bezela, euskera hizkuntza idatziaren aldetik, gauzak topatu ditugun bezela uztea biderik egokiena zela iruditu zaigu.

BIZKAIKO TXERRIARI JARRIAK

Bertso hauek, bost puntukoak, Uztarri bertsolariarenak dira. Berez 16 bertso edo estrofa dira. Honako liburutik jaso ditugu: «Azpeitiako zenbait bertsolari» (Auspoa argitaldaria, 95-96 zenbakia).

ANDRESEK BERE ANDREGAIARI

Berez, 24 bertso edo estrofa dira. «Bertsolariya» bertso-paperean bildumatik zuzenean jasoak ditugu. Berez, egille ezezagunarenak bezela agertzen dira, naiz eta Andres Mitxelena baten gertakizunak aipatu.

AMALAU ERIYOTZENA

Berez, 12 bertso edo estrofa dira. Don Manuel Lekuonaren «Literatura oral vasca» liburutik jasoak ditugu (Ed. Auñamendi, 45-gn zenbakia). Hemeretzigarren mendeko gertakizun batetaz dira, Jose Larreina izeneko gaizkile baten historiari.

ANDRE TXARRAREN BENTAJAK

Xenpelarrenak. Berez, Makazagaren argitalpenean 15 bertso edo estrofa dira. Bi tokitan begira litezke: «Xenpelar Bertsolariya», Jautarkol-ek idatzia (Itxaropena argitaldaria - Kulixka Sorta, 25-26 zenbakia);

edo bestela aita Zabalaren «Xenpelar Bertsolariya» (Auspoa, 88-89-90 zenbakian). Bi liburu hoietan begira litezke bertsoak nola diren, eta zer aldaketa eta desberdintasun dauden bertso-paper batzuetatik bestetara.

SALBATOREKO ERMITAN

Xenpelarrenak. Bertso hauek, izen berezirik gabe, Jautarkolek bere lehen aipaturiko «Xenpelar Bertsolariya» liburuan dakarzki; liburu hortan, denera 8 bertso edo estrofa dira. Aita Zabalak, aldiz, lehen aipaturiko bere liburuan, Auspoakoan, «Bertso berriyak... Dibertsioyo bat jartzera nua» deitzen ditu, eta bertan 16 bertso edo estrofa dakarzki. Begiratu eta konparatu nahi dituenak, liburu hoietara jo beza.

AZKEN-JUIZIOYOKO EGUNA

Xenpelarrenak. Bai aita Zabalaren liburuan, bai Jautarkolenean, bietan daude. Eta bi liburuetan 18 bertso edo estrofa datoz, ordena berean eta, aldaketa itiki batzuk ezik, berdin-berdin.

PROPORZIOYO BAT

Txirritarenak. «Bertsolariya» bilduman datoz, eta aita Zabalak ere badakartz bere «Txirritaren Bertsoak (II)» (Auspoa, 103-104), izeneko liburuan. Zabalak «Bertsolariya»-tik hartu dituzenez gero, han bezela dakartz, baiña inprentako errata eta beste hutsegite itipi batzuk zuzenduz. Berez, 12 bertso edo estrofa dira.

ZUK IL ZENDUEN ARTZAIA

Txirritarenak. Aita Zabalak argitaratutako «Txirrita» liburuan datoz (Auspoa, 18-19 zenbakia). Bi bertso dira.

ORAINGO NESKATXEN JAZKERA

Txirritarenak. Aita Zabalak, «Bertsolariya»-tik hartuta, bere «Txirritaren Bertsoak (II)» (Auspoa 103-104), liburuan dakartz. Denera 12 bertso edo estrofa dira.

NAGUSIYA TA MAIZTERRA

Txirritarenak. Aita Zabalak, «Bertsolariya»-tik hartuta, bere «Txirritaren Bertsoak (II)» (Auspoa 103-104), liburuan dakartz. Denera zortzi bertso edo estrofa dira.

ATSO GEZURTI BATI

Txirritarenak. Denera 6 bertso edo estrofa dira. «Bertsolariya» bilduman daude. Bai eta aita Zabalaren «Txirritaren Bertsoak (II)» (Auspoa, 103-104), liburuan ere. Baiña batzuetatik bestetara aldaketak daude. Guk aita Zabalak dakartzin eran kantatu ditugu, hasiera ezik.

JUANA BIXENTA OLABE

Bilintxenak. «Bertsolariya» bilduman datoz, eta beste toki askotan ere argitaratuak izan dira, kantutegi, etabar. A. Zabalak liburu batetan bildurik ditu: «Indalecio Bizcarrondo, BILINTX - Bertso ta lan guziak» (Auspoa, 12-gn zenbakian). Ia «Bertsolariya»-n bezela datoz. Denera 21 bertso edo estrofa dira.

SUANTXAREN BERTSUAK

Oiartzungo bertso herrikoiak dira, Iturriotz hauzoan gertaturiko arazo batetaz. Oraindik Oiartzunen frango kantatzen dira, eta besteen artean Juan M. Lekuonak ezagutzen ditu. Guk 6 bertso edo estrofa dakizkigu, naiz disko hontan denak ez kantatu.

NERE SENTIMENTUA

Antonio Urbietta, Oiartzungo «Zurko» baserrikoaren bertsoak. Oiartzunen oso bertso ezagunak, eta oraindik orain asko kantatzen direnak. Guk handik jaso ditugu. Denera sei bertso dira.

BRABANTEKO JENOBEBA

Juan Kruz Zapirainen bertsoak; erreteriarra bera. Denera 162 bertso edo estrofa dira. Guk 1929-gn urteko argitaraldi batetatik jaso ditugu; Juan M. Lekuonak utzitako liburuxka bat da, eta argitaretxearen izenik ez du jartzen.

AFRIKAN SUFRITZEN

«Bertsolariya» bildumatik jaso ditugu. Denera 12 bertso edo estrofa dira, eta egille ezezagunarenak bezela agertzen dira.

ORAINGO ERRETERIARI

Pello Zabaletak jarriak. Denera 12 bertso. Aita Zabalak argitaratu ditu, «Juan eta Pello Zabaleta, bertsolariak» (Auspoa, 63-64) izeneko liburuan.

KAZKAZURIK BERE BURUARI

Joxe Joakin Urbietta, «Kazkazuri» deituak, jarriak. Hau ere Oiartzungo «Zurko» baserrikoa zen, Antonio-ren anaia. Bertso hoiek oso ezagunak dira Oiartzunen. Aita Zabalak ere argitaratu zituen, «Kazkazuri bertsolariak» (Auspoa, 114) izeneko liburuan. Denera 11 bertso dira.

TXEPETXARENAK

Pello Mari Otañoren bertsoak. «Bertsolariya» bildumatik zuzenean jaso genituen. Denera 5 bertso edo estrofa dira.

BERTSOAK JARTZEN NAIZ ASI

Paulo Yanci-k egiñak. Aita Zabalak honako liburu hontan jaso zituen: «Paulo Yanci ta bere lagun bertsoak» (Auspoa 77-78). Denera 25 bertso edo estrofa dira.

BIZKAIKO TXERRIARI JARRIAK (Uztarri)

Motibo bat nigana dago etorria esplikatuko banu txit parregaria, Bizkaian egin dute prueba berria kutxillorikan gabe iiltzeko txerria; erakutsi diote istillu gorria.

Bi familiak zuten nolabait azia erdi-bana jateko kendu nai bizia; abillak egundaño beti malezia, lau lagunetan artian zer agurezia, beintzat eskapatzeko izan du grazia.

REF. M. J. 1	269
N.º OBRA	270
REF. L.P. 2	
REF. Invent. Aut. 96	

Fameli ori nor dan nai dezute jakin? Bi gizon eta bi andra beren izenekin, gizona bat Pepetxo bestia Antolin, emakumeak berriz Ana eta Kattalin; laurok ere bazuten naikua zer egin.

Mazuarekin jo du
Pepetxok buruan,
txerria gelditu da
illaren moduan;
erretzen para zuten
lastuaren suan,
polañak jaso ditu
sutu dan orduan,
diabruak arturik
igesi da jua.

Bizkarra erreta ta
kolpia buruan,
Jaungoikuak badaki
zer ikusi duan;
erlua-igesi
bere enpeñuan
kamiñuan azpian
sartu zan kañuan,
gero billatu dute
gurrinka-soñuan.

Txerri ori zegoen
barrunen sarturik,
gorde-leku polit bat
beretzat arturik;
billatu zutenian,
kontentuz beterik,
len bezela ez dauka
igasi juaterik,
ustez ipiñi zuten
aseguraturik.

Zuek emakumiak
emen egin kargu,
abiatzen danian
gogotikan eldu;
guk beste aldetikan
zaituko degu,
len bezela lastua
sutuko diogu,
azariaren gisan
aterako degu.

Azaria bezala
sutu dutenian
atsuak bota ditu
kañu-baztarrian;
mokadurik etzeukan
artzeiko lurrian,
asko korritua da,
ez dago urrian,
pakea eman digu
Bizkaiko lurrian.

Garizuma santua
izanagatikan
ez daukate pekatu
egin bildurrikan;
auzotik ez badator
erregalorikan
iñolaz ezin autsi
bijiliarikan,
aurten ez dute oiek
bula bearrikan.

Artorik apenas du
etxian ikusi,
egunian bi aldiz
asunak egosi;
beste aziorikan
ez zuten merezi,
argala dan medioz
juan da igesi,
urrenguan obeto
gizendu ta azi.

Orra amasei bertso
bizkaitar oieri,
motibo orrentzako
ez dira geiegi;
iñork jakin nai badu
kausa orren berri,
zein lekutan pasa dan
komeria ori,
galdetu Azpeitiko
utzargilleari.

ANDRESEK BERE ANDREGAIARI
(Andres Mitxelena-ren gertakizunaz)
Milla urte pasata
bederatzireun
bederatzireun,
aurten zazpigarrena
broman pasa zaguñ,
dama gazte polit bat
ustez nekan lagun
gazte gaztia zela
egina ezagun,
mingañaz alegría
amorioz illun.

Zelestina dauka
dama orrek izena
dama orrek izena,
Aranon bertan jaio
ta an bizitzen dena,
Andres orreri kantak
jartzen asi dena,
baña ez izan balitz
alaja zuzena,
nik ola mendratzen det
merezi dubena.

Ezkontza zerraturzen
San Juan bezperan
San Juan bezperan,
gabeko amaiketan
kanpuan intzetan
bidez azpiko aldetik
leku polita zan,
aingeru bat bezela
izketan ari zan,
ni arront engañatu,
gazte xamarra izan.

Eskutikan elduta
asi zan esaten
asi zan esaten:
—Andres, zuregandikan
ez naiz apartatzen;
lore ederragorik
ez det nik ikusten,
esposatu bitarte
liberti gaitzezen,
jai bat señalatuta
Donostira goazen.

Etxetik Ernanira
juan giñan oñez
juan giñan oñez,
birian itz potxolo
ederrak esanez;
Donostira tranbia
noiz zeguen galdez
frantzesarekin igual
asitzen zen ingles,
erderaz ere fuerte
naiz bate jakin ez.

Tranbi ortan sartuta
jo degu Donosti
jo degu Donosti,
bulebarrera jua ta
pasiatzen asi,
gero Bretxatik bueltan
kaliak ikusi,
eskuineko besotik
ein zidan imurtzi:
zapata pare on bat
bear niola erosi.

Zapata oiek artuta
bazkaltzera fonda
bazkaltzera fonda,
galdezka abaniko
almazena nun da;
urare erosi nion
neskatx orri jun da,
burua freskatze
izugarri on da,
nere kontura orrek
pasatu du broma.

Urrengo egunean
jo degu Ernani
jo degu Ernani,
tranbian mano a mano
begira alkarri;
an erosi nituen
sei pañuelo zuri,
agua koloniatik
beste botilla bi,
orduan zapuztu zan
nere birjiñ ori.

Santiyagotan ziran
azkeneko planak
azkeneko planak,
zuzena okertzen du
artarako danak;
neska tranposa orren
orduko esanak,
etzizotela uzten
aitak eta amak:
akabatu dirala
ezkontza onen lanak.

Aranon jaioa naiz,
askok dakitena
askok dakitena,
ongi egin ta gaizki
pagatu nautena;
igualak zerate
familiya dena,
Zelustinak ez dauka
nik aiñako pena,
Ollinden bizitzen da
Andres Mitxelena.

AMALAU ERIYOTZENA
(Jose Larreina-ren gertakizunaz)
Milla zortzireun eta ogeitabostian
au amairugarrena Urri-ko illian
Martin Itzeberriko Altzibarrenian
atiak jo nituen ongi illunian,
baita ireki ere borondate onian.

Ixtimatu ninduten konde bat bezala,
sillan exeri era afaldu nezala;
konformatu ziraden familiyan ala
nagusiya ta biyok etziñen giñala...
berari sartu niyon petxutik puñala.

Oitikan saltatu zan eriyo-igesi,
nigandik alakorik etzuen merezi.
Alabak zuenian aita ala ikusi
apaizaren eskaka bertatik zan asi;
aizkora trixte batez niyon burua autsi.

Ogeita iru urteko neskatxa gaztia...
etzen bada lastima ala tratatzia?
Aizkora trixte batez muñak saltatzia;
ez da milagro izain ni laixter galtzia;
aisa merezi nuen bertan urkatzia.

Ikusi zitunian senarra ta alaba
Katalina gaxuak, ai, ura negarra!
Ez bazuen jarri nai bestiak bezala
dirua non zeguen esan beriala;
ongi banekiyela dirurik etzala.

Santo Kristo, zurekin konfesa nadiyan
zer obra egin nuen nik Katalaunyan.
Leridan pasa eta urbilien erriyan
bost lagun bizi ziran beren familiyan,
guztiyak il nituen gabaren erdiyan.

Gorputzeko ikara, animako lotsa
zeren egin ditudan amalau eriyotza.
Aduitu ezkerotzik diruaren otsa
bidean atera-ta botatzeko poltsa
aterako niola bestela biotza.

Lenguan izandu zait anaia gaztia,
lastima egiten zuen nere ikustia.
Ai zer nola ote diran aita-ama tristiak!
Nitzaz eskarmentatu balitez bestiak...
Ni ere izutzen nau biziya kentziak.

ANDRE TXARRAREN BENTAJAK
(Xenpelar)

Milla zortzireun irurogeita
laugarren urtian gera,
publikatutzen astera nua
familiyaren galera;
andre ederra gustatu eta
ekarri nuen aldera...
bide berriya egiña dauka
ganbaratikan kalera.

Aitak egiña nuen ezkontza,
amak nai zuen artzia,
neronek ere pentsatu nuen
alien eskura jartzia;
andre ederra ezin geiago,
umilla eta dultzia,
surtan jartzian probatutzen da
nolakua dan eltzia.

Amarretako jeikitzen bada
armariyu iriki,
arropak artu, amaiketako
apainduko da ederki;
katillu-salda arduarekin,
gorputza sano eduki,
bere burua gobernatzen du
gizona baiño obeki.

Lengo batian, esango det noiz,
igande illunabarra,
nere andria dantzan zebillen,
begira zeudenak ferra;
lanian ez du gogorik baiña
pandangolari azkarra,
baldin neonek ikusi banu
autsiko nion bizkarra.

Eskail-burutik amildu eta goitikan beraño zuzen, lendabiziko pentsatu nuen eltzee zarren ote zen; anka bat zeukan Bitoriyan ta bestia berriz Londresen, gaur ere ala egongo ziran inñor etorri ez bazen.

Eldu nion ta an ari nintzan andria ezin jasorik; esan zidaten: «Edana dago, ta ez egin orri kasorik»; total egiña zegoen baiña alare ezurrak osorik... galdetzen zuen: «Plakiyak nago, ez al-da ardo goxorik?»

Egun guziya kanpua pasa, etorriko da gabian, kopeta illun, begiyak zorrotz sartutzen da sukaldian; ume gaxuak negarrez daude afariyaren galdian, artua errotan, ogiya palta, jakiya berriz kalian.

Arduarekin adiskide ta gizonarekin zapuztu, gaur ere nere andriarekin egingo nuke apustu botilla aundi bat basorik gabe baietz aguro ark ustuz; orretan dago sufiziente, beste bentajarik ez du.

SALBATOREKO ERMITAN (Xenpelar)

Milla zortzireun irurogeita irugarrengo urtian, Asentziyoz zan erromeriya ermita txiki batian; mundu ontako arrokeria animentzako kaltian, bi dama gazte ikusi dituz ezin pasarik atian.

Barrena sartu ziradenian parrez nengoen atzetik, dudarik gabe promes eginda juanak ziraden etxetik; majo on bana eskatzen zuten lendabiziko itzetik, Salbadoriak libra gaitzala neska zarraren gaitzetik.

Eleiza ortako pasada eginda eseri ziran soruan, beren burubak errespetatzen aundimendiyen moduan; abanikurik zuten edo ez orain ez daukat goguan, zikin mantxarrik etzan arkitzen oriyen belar-onduan.

Meriñakia azpitik eta gero soñeko gorria, lasaitasunak galdu ez ditzan kortsiatuba gerriya, zapatatxak txaroiatuak, begi engañagarriya, eta buruko pañolitua frantzes modura jarriya.

AZKEN JUIZIOKO EGUNA (Xenpelar)

Abenduaren lendabiziko goizeko zazpiyeta zen, tenplo santuan egondua naiz sermoi eder bat aditzen; Jesusen llaga preziosuak astera nua berritzen, Zeruko Aita lagun zaidazu entendimentuz argitzen.

Nere kristabak birian dator azken juizioko eguna, jakiña dago begien bistan ikusi bear deguna: Josefateko zelai santuan tronpetak soñu illuna, galduak pena eramango du justuarentzat fortuna.

Munduko gauzen errematia dakar azken juiziyuak, auts biurtuta utziko ditu erri ta palaziyuak; mendiak lertu elkarren kontra erreino eta naziyuak, sententzi ori botako digu Jesusen bendiziyuak.

Itsasuak su, eguzkia illun illargia odolak artu, lurak ikara eta gaiñera erriyo denak agortu; munduko gauza baliosuak erre ta ikatz biurtu... pekatariak umil gaitezen bada zerekin bildurtu.

PROPORZIYO BAT (Txirrita) 154

Mixiolari baten moduan juan dan lau illabetian nabil ejenplu onak ematen inuzentien tartian; txorakerian ibili giñan sasoi genduen artian, allegatu naiz irurogei ta amabigarren urtian, zer lastima den ezkondu gabe sartu biarra lürpian!

Propozio bat izandu nuen erdi-zartu ta gero-re, neskatxa batek: «Txirrita, biyok esposatuko gerade; ditudan gauzak eta diruak zutzat izango dirade, edo bestela azken fiñian penetan ilko zerade guraso zarren mogimentua noia dan ikasi gabe».

Esan bezela neskatxa orrek emen zidan albistia, erresposta aditu arte larrari egon zan tristia: —Alde batera pena artzen det zu modu ortan utzia, baiñan zartu naiz, ez da posible lan oriyetan astia; borondatia istimatzen det, eskerrikasko gaztia.

Aiskide batek esan dit neri Donostiyako partian: —Iya lazuan sartu zinuñzen, etzabiltza apartian; ez kasoik egin neskatxa orri, utzi zaiozu pakian, goizero an da botillarekin Amueneko atian, litro-erdi bat patar biaute ama-alaben artian.

Ardua ere kastatzen dute ez aguardienta bakarrik, bazkalduta-re kaferik gabe ez da artutzen pattarrik; ez Donostiyan jaiotakorik, ain gutxi goieritarrik bere burua ola ofrezitzen ez dabil neska jatorrik; baiña gaxuak nere kontura etzuen busti muturrik.

Ezin sinistu izandu nuen neskatxa orren esanik, ta berak ere etzekiyen ni zurruterua nintzanik; elkarrengana bildu bagiña etzan gurekin gauz onik, jende gelegik jakin ez dezan ez det esango izenik, oraindik ere soltera dago, etzuen artu gizonik.

ZUK IL ZENDUEN ARTZAIA (Txirrita)

Larogei urte pasatu ditu dirudiela etsaia, orain bi anak arrastaka ta burua soiltzen asia, gizarajuak badu beregan makiña bat desgrazia, ez dago garai batean bezin arrua eta lasaia, beste munduan ikusiko du emen il zuen artzaia.

Kulparik gabe bota zenion fusillako kargazoi, gizon gaxuak aserretzia ez al zuen arrazoi? Diabru zarrek aditzen dute zure animan usaia, eriotzaren etor-bildurrak estututzen du lasaia, zu baiño gizon formalago zan zuk il zenduen artzaia.

ORAINGO NESKATXEN JAZKERA (Txirrita) 107

Ara, neskatx gaztiak, zuentzat bertsuak, bistan daukazkitenai petxu ta besuak; etziran ola bizi zuen gurasuak, esperantza ederra daukate gaxuak zartzera pasatzeko egun erosuak!

Gona laburrak jantzi, illiak moztuta, nor azalduko zaien dabilta poztuta;

amaren arrazoiak balio ez du ta, berenak aundiago kopeta beztuta, gorputza adornatzen animaz aztuta.

Dantzatik geldituta illunabarrian, bakoitzak mutil bana badute urrian; fallorik ote daukan atzian t'aurrian alkar neurtuko dute luze-laburrian; erretiratzen dira garai ederrian.

Lenguan neskar bi, orien jazkera, gona motxak jantzita pasiatutzera; otsuak soildutako ardien antzera, besuak agirian, kolkuan petxera, amarrak alde arte ez datoz etxera.

Ni askotan bezela tabernan nenguan, neskar oieli esan nien lenguan: «Jantzi ori ona da denbora beruan, baiño ez libeltzian eta abenduan; gaxuak, otzak ilko zaituzte neguan!»

Ustez ez nien egin abertitu baizik, bat oso zapuztu zan egin gabe itzik, bestiak erresposta eman zian pozik: «Ez dauka jantzi onek iñorako lotsik, sasoi daukanak ez du sentitutzen otzik».

Beraz, erare ontan olako sasoi, ogei ta bi urtetan etzeunden lasaia, adituko zenuen mutilen usia; polita zera, baiño ajatzen asiya, gona motz oin aspian daukazu etsaia.

Garai batez majuak bazituan sobran, orain zeñek nai duen emen dabil proban; afanosa bat dala ezagun du obran; iñork jakin nai badu neskatx ori nor dan, Ote-Motx'en jaiua Ximelaren bordan.

NAGUSIYA TA MAIZTERRA (Txirrita)

Orain artian ni izandu naiz aifona, zure nagusi, errenta txintxo pagatu dezu zere kappi eta guzi; zu baño gizon umillaguak ez ditut asko ikusi; orain etxera saltzera goaz nai bazenduke erosi.

Larogei duro zuben errenta etxiak orain artian, zerorrek ala pagatu dezu berogei ta amar urtian; lenguan bertan gelditutzia izan liteke kaltian; bost milla duro balio ditu ia konpondu gaitian.

Zer familia izandu degun nai al du jauna aditu? Amabi aurren aita naiz ni ta semiak amar baditu; lan egiteko iñor gutxi ta mayian ezin kabitu, baneukake nun onpleatua bost milla duro banitu.

Au aditu ta beste aldera bueltatu zan nagusiya esanaz: «Nik zer kulpaa dadukat zuk ume asko aziya. Ez dezu asko ixtimatzen nik egin dizutan graziya; zuek artu nai ez badezute bada zeliñek erosiya».

Aziendaz ta lan-erremintaz bagenedukan indarra, aiekin ere ez degu orain oso itxura ederra; zazpi baliyo luteken gauzak bostian eman baxarra... Au pentsatzen etortzen zaigu begietara negarra.

Prezisamente alde egin bear baserri edo kalera, norbait egin bearko zaio bizi-lekuen galdera, esplikatuaz nola izan dan fameliyaren galera, gure Jainkuak nai duen arte nunbait mantenduko al gerala!

ATSO GEZURTI BATI (Txirrita)

Txirrita il dela sortu omen du Aurrin-Azpi'ko atsuak, pena galanta artuko zuten sifiare ta gurasuak. Al zer negarrak nere koñata eta illoba gaxuak! Bizi naizela jakin dezaten jartzera nua bertsuak.

Izeba zar bat bada Panplonan gure etxian aziya, artxek emanda artua naiz ni bataiuaren graziya; argana ere allegatu da il naizela notiziya, koittara ura an omen dabil guziya lutoz jantziya.

Panplonan dedan izeba xarra zenbatxu maite dedan nik, ez derizkiyot iñortxok ere juzgatuko lukianik; koittara arek abixutxo bat artu biar du nigandik, luto oriek erantzituko, bizi naizela oraindik.

Zeruban dauden santu ta santak daude triste ta seriyo, gure auzuan bizi dan atso sorgin bat dala meriyo; baldin Jainkuak salbaziyorik orri ematen badiyo, umildade ta erreztziak askorik ez du baliyo.

JUANA BIXENTA OLABE (Bilintx)

Amak esan dit, etxeko errenta pagatzeko dirurik ez zuben ta, ai egingo dion mesere illabetian geienaz ere itsoitia bada zierio dela ematia pasa baño len illabetia.

Logratutzia errez alare naiz ori ta beste zernai gauzare seguru dela esan amari zu baldin bazatzo mandatari. Dudarik gabe nere borondate onaren jabe zu zera Juana Bixenta Olabe.

Beraz bertatik nua etxera poz aundi bat amari ematera. Orain ariyo nagusi jauna presaka noa amarengana. —Etxaitze jua portatu zaite nik nai moduan geratu zaite gaur nere onduan.

Gaiñera berriz, Juana Bixenta, utziko dizuet etxeko errenta. Kito zor didazuten guziya kunplitzen baidazu kutziya... —Lotsa gogorra! Sufritzen dago gaur nere onra, penak malkuak derizkit... orral!

Nik ditut kulpak, ez egin negar orlakorik ez nizun esan bear. Biotzean sentitzen det miñia zuri ofensa ori egiña.

Maldiziyua!
ez dakit nun neukan juiziyua: eskatzen dizut barkaziyua.. (1)

(1) Juana Bixentak, nagusiaren damutasuna ikusiz, barkatu zion. Orduan honek, hainbeste edertasun eta birtutez liluraturik, berarekin esposaz zedin eskatu zion. Juana Bixentak, baletz, baiña joateko urrengo goizean bere amarengana, kortesiyak eskatzen zuen modura.

Eldu zanian urrengo goiza nagusiyak zuben kunplitu itza. Joan zitzaion amari etxera andretzat alaba eskatzera.

Amak txit firme, artuta gero milla informe, galditu ziran biyak konforme.

Dama gaztiak, ez egon lotan begira zaitzete ispillu orran.

Gustatu eta birtute ederra andretzat artu bere maizterra du nagusiyak, orla irabazteko graziyak saia zaitzete beste guziyak.

SUANTXAREN BERTSUAK (Oiarzungo bertso herrikoiak)

—Aizazu, Suantxa, zer modu daukazu?
—Pobre baiñan alegre, zer esain degu...
—Soka bat ekatzu, lotu bear zaitugu, baiñan ez izutu: agintzen digutena jein biarko degu.

—Jaunak, esazute zer dan motibua ni preso eramateko sokaz lotua.
—Guk degu kargua zu eramatekoa bear den lekua; an aginduko dute gaiñerakua.

—Joan biar degu, goazen geren biagian, baiñan luzatu gabe gaituk etxian. Norbaitek tranpiyan galdu nau mendiyon.
—Baiñan bitartian ez da libertaderik gure artian.

Au da komeriya, nere Jaungoikua! Arratoi bat bada emen ni aieñekua. Aren alkantzua, auntza gaiñekua, ez du indar gaixtua. Ogi osuarekin noiznai dijua.

Amabi urtetan ail zenbat gauetan negarrez egondu naiz kartzela onetan. Grilluak anketan, zorriyak mantetan, jan ona bestetan. Ezer gutxi zio gaur zortzi sosetan.

NERE SENTIMENTUA (Antonio Urbiet)

Nere sentimentua nai det deklaratu Ameriketan pago, au ezin ukatu; emen egiñagatik ondo gobernatu orkuaz egiten naiz asko akordatu.

Onuntz etorri nintzan utzirikan ama anai-arrebak eta familiya dana; egiñagatik desio nuena geroztik txixte dago ail nere barrena.

Amazazpi urtetan banuen segira neska gazte guziak neroni begira; lurrik ikutu gabe gorputzi jira, orduko arintasunak asentatu dira.

Gorputz ederra nuen, dantzari ariña, baiñan ez da izaten betiko egiña; orain egiñagatik emen alegiña, ez gera libertitzen orduan adiañal

Orko bizimoduaz oso aspertuak, onarako ziraden gure desiuak; orain atzera berriz emanik pausuak emen bizi gerade erdi-mudatuak.

Desperida dijua sei bertso oiekin, anaia konformatu orrenbesterekin; nere gustua au da, nai badezu jakin, beste orrenbeste jarri, aio Joxe Juakin!

BRANBANTEKO JENOBEBA (Juan Kruz Zapirain)

Golo ori zan Konde-Kondesen gauzen begiratzallia; buruz bizkorra, iztun ederra gezur-zurikatallia; ain kezkategi galdukua ta griña txar denen jabia... itz gutxiarekin bukatutzeko besteren andre-zalia.

Bildurgarrizko soñubarekin zabaltzen zuen atia, Golok bakarrik. besterik iñork etzuben esku juatia; galdetzen zion ez al zan asko ainbeste eramatia, orrek erantzun: «Bete dedilla Jaunaren borondatia».

Begiyetik sia zuriyon, etzegon urrikaltzeko, borraru biri dei egin eta aizkora zorrotzuteko; ama-semiak mortura eraman, lepuak ebakitzeke, il zituzela sinistu zezan bi begiyak ekartzeko.

Eldu zan noizbait basamortura atsedenduaz aldizka: «Tira, Enrike, aurr kendu ta begiyak estal akizka.» «Aizak, Gontzalo, gogoratzte utsak ipintzen niok jauzika... Nere partetik il gabetandik utziko nitek pozika.»

Jenobebaren bizibidea nolakua zan basuan pixka bat beden esan bear det iñork ikasi nai duan. Elur-azpitik belar-zain biltzen, aurtxua berriz besuan, biatz-muturrak odoltzeraño gaxuak jango bazuan.

Ariya zuben sarats-azala, jostorraz berriz ziriya, jakiña dala etzela izango pitxikuletan josiya... Onuts gorriyan, besuak berdin illia bera utziya: auxe izan zan Jenobebaren basamortuko jantziya.

Orra gerratik soldaduekin biurtutzen da atzera; ustekabian gabez sartu zan festan zeudela etxera.

Kondia zala jakindu zuten,
guziyak agurtutzero...
bai Golo ere aberiari
brenuetatik eltzero.

Eskuak dal-dal jarri zitzaizkan,
musu gorriyak zuritu,
izketan ere aztu zitzaion,
pauşuan ezin jarraitu.
Ezaguturik galdetu ziyon:
«Golo zerk estutzen zaitu?»
«Etxeko-andria gogoratzen
ezin naiz jauna lasaitu.»

Urkatutzero erabakiya
zan lendabizi zuzendu,
orduban zaldiz puskatutzero
juezek zuten agindu.
Jenobebaren arrenez ziran
aien biyotzak bigundu...
barkatutzero nai zuben baiña
etzuben iritxi izandu.

Bai, Jenobeba, esan gabiak
asko gelditzen zaizkizu,
nola ez dedan eskolarikan
zedorrek ondo dakizu.
Baldin zeruban nere izketak
kalterik egin badizu,
ez jakitien uts egin badet
barkatu bear didazu.

•AFRIKAN SUFRITZEN (Egile ezezaguna)

Milla pasa ta beratziregun
oitabigarren urtian,
bertso bi para bear ditugu
euskera eder batian,
geuren izena galdu baiño len
ea akordagaitian
gerran nolatan jarri gaituzten
ondo geundenak pakian,
desgrazi ori etzaigu aztuko
bizi geraden artian.

Mantzarik gabe pake onian
izan gera orain daño,
orain au gaitzen gizon batzuek
duten ainbeste enpeño,
eta gañera gerrara guaz
moruen terrenoraiño,
utsa sikira izan bagendu
arrazoia artaraiño,
bertan altxatu obe genduke
Afrikan sufritzen baiño.

Gerra ontako pasadizuak
esplikatu albanitza,
Jaun zerukuak nik nai bezela
ematen badit laguntza,
amaika amaren anparo noblek
emen utzi du bizitza,
jateko falta, zer jantzirik ez,
au da martiriyo gaitza,
bizi geranak ere ederki
penaturikan gabiltza.

Maiatzian zan sinalamente
goguan detan eguna,
moro oiekin guk azkeneko
batalla egin deguna,

iñork ikusi gabetandikan
sartu ziraden barrena,
il ta eritu lur estalian,
nork ez du izango penal
sustotik ere makiñabati
galdu zaio osasuna.

Gure eririk etorri giñan
terrenuak artutzero,
ez modu ontan sustantzi gabe
geren buruak gaitzero,
inuzentian aurrera bota,
kulpa dutenak atzero,
zer kontatua guk bagenduke
juango bagiña etzero,
emen semiak dauzkaten aitak
saiatu libratutzero.

•ORAINGO ERRENTERIARI (Pello Zabaleta)

Orain berrogei urte
gure Errenteri
kasik esan liteke
etzala ageri;
urtertikan urtera
aunditzen da ari,
ordutikan onera
Parisa diruri.

Au da Erren^{er}ria
orduan etzena,
gaur ate geienetan
denda edo taberna;
nonai sartu liteke
kanpotik barrena,
badago nun gastatu
irabazten dena.

Jendia eldu zaigu
urritatikan,
ez da iñor juaten
etortzen danikan;
bost aldiz aundiago
egitiatikan
guk emen ez daukagu
txoko bat utsikan.

Orain berrogei urte
denen lagun nintzen,
gaur berriz kasik ez det
iñor ezagutzen;
askotan egoten naiz
gauz ori pentsatzen:
orduko umorerik
ez det sentitutzen.

Notiziyak badituzte
Amerikatikan,
euskaldun asko bai da
joana emendikan;
lur ontaz oroituzten
dira oraindikan,
nunbait-e bizi bear,
ez da besterikan.

Agur, amerikano
Euskalerrikuak,
emendik juan zifazten
gazte sasoikuak;

zuen bakante oiek
daude ornituak,
kanpotikan etorri
zaizkigu naukuak.

•KAZKAZURIK BERE BURUARI (Joxe Joakin Urbietia-Kazkazuri)

Kantatutzero nua bertso bat edo bi
Kazkazurik jarriak bere buruari;
gustoik ez diot artzen bizimoduari,
deskalabrua pranko gertatu zait neri.

Kojo gelditu nintzan txiki-txikitandik
paretara iyo ta erorita andik;
informe txarrak dauzkat gaur
[askorengandik,
neretzat berri onik ez dator iñondik.

Dama batek nai zidan karga bat arindu,
pretenditu ninduen, ez nion agindu;
amets gaixtua pranko geroztik egin du,
trixtia urriki nuen ni artu banindu.

Aitak ere nai zuen biok ezkontzia,
bañan etzan posible nil ondo portatzia;
obe da zer datorren kontsideratzia,
nolanai artzekua ez da gurutzia.

Txiki-txikitandikan arro ta tunante,
kontrariau pranko, gutxi det amante;
lan onek seittuko nau bizi naizen arte,
aitxurak eta palak muatuko naute.

Ez nau inkomoratzen besteren lujuak,
deklaratzera nua nere enojuak;
zurrutak tiratzen nau, pixka bat jokuak,
atarramentu onik ez dauka kojuak.

•TXEPETXARENAK (Pello Mari Otaño)

Euskal-lurreko txoriyetan den
txikitxuena da bera,
gaztain kolore bakarrekua,
nai bada ez da ederra:
begi argiyak, buru xanpala,
noko tentia aurrera;
gorputza motxa, anka laburrak,
xaltokako ibillera.
xalapartako egalariya
eta kantari ergela.

Txotx batek aisa jasoko luke
nola karga gutxi duan,
baiñan gustatzen zaio jartzia
adar sendoxiaguan;
amildu arren ez leike galdu
dakielako eguan;
baiñan arkitzen baldin bada ere
burnizko aldamiuan,
iru-lau aldiz xanpatutzen du
seguru ote dagan.

Udaberrian lendabiziko
kabia txepetxarena
azaldutzen da, ta ezaguna,
goroldiozkua dena;
arbol gerriyan, untza tartian
du lekuriyan maitena,

ta gizon askok ikusitziyan
iritxpirian deguena,
esan oi dute: zer konfiantza
txori txar onek dubena!

Ta edozeñiek esan lezake
berari begiratzen
arretarikan ez daukala
gerta leioken gaitzen;
ez -iduriyan ark kabiari
beste zuluia atzian
egiten dio, andik joateko
aurrekua tapatzian,
erakutsiaz pentsa zagula
nola atera sartzian.

+BERTSOAK JARTZEN NAIZ ASI (Paulo Yanci)

Bertsoak jartzen naiz asi
kopiatur ta guzi
nai ditubenak ikasi;
Afrika aldera oraingo aldiyan
gazteri aundiak duazi;
diete adierazi
ez dela joan biar igesi;
amak negarrez daudezi.

Bete besuak galoiez,
zillar ta urre kolorez,
agindu modu gogorrez;
artu ta eramen gure semiak
azitakuak dolorez,
ez dute eskatzen faborez,
batek nai badu eta ez
lur bustitzero odolez.

Eman arma ta trajia
Afrikara barajia,
mutikuak korajia;
kristandadian izenarekin
gizon iltzera bajiya;
moro edo salbajia
ura da aien parajia
Jaun Zerukuak lajia.

Izar-dun oiek poztuta
beti aurrera kenduta
orai geldi dira oztuta;
ameka urtian irabaziak
egun gutxitan galduta,
denek badute diskulpa,
baiñan ez dago aztuta
jefe zenbaiten konduta.

Arruit, Zeluan ta Nadorrrak,
ango odol gaitze gogorak,
gorriturik daude lurrak;
ango kontuak aditu eta
bat artutzen du beldurrak;
ez dira noski gezurrak;
egazkiyak eta txakurrak
txuputzen illen ezurrak.

Orra gerran ondoria,
gure gazteri floria
desastre ortan eroria;
triste oientzat eskatzen dizut
zure ta lurren jabia,
beste munduan gloria,
zorion paregabia,
Afrikan baiño obia.